

TREBAKUNTZA 2017-09: LABURTZAPENAK (I): SIGLAK

Udal idazki askotan laburtzapenak gaizki erabili ohi dira. Gaur, laburtzapen mota bati buruz arituko gara: siglei buruz. Siglek ezaugarri hauek dituzte:

Erabilera: erakundeak, instituzioak, elkarteak... izendatzeko erabiltzen ditugu.

Idazkera: larriz idazten dira, eta ez dute punturik hartzen ez letren artean, ez bukaeran.

Deklinazioa: izen bereziak bezala deklinatzen dira; hau da, ez dute artikulurik hartzen.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Ikasleen %86k lortu dute azken ikasturtean **DBHeko** titulua **EAEan**.*
2. * ***AEKk** eta **IKA-k** Nafarroako Gobernuak euskaltegiei zuzendutako diru laguntzak murriztu izana salatu zuten atzo.*
3. * *Oposizio lehiaketetan jendea baztertzeko jokabide ezegokia erabili duela egotzi dio **ELA-k** **BBK-ri**.*
4. * ***UPNn** eta **CDNn** erakusketa debekatzearen aldekoak dira gehienak.*
5. * ***EA-k** eta **EAJ-k** gaur aztertuko dute Batasunaren programa.*
6. * ***LABk**, **ELA-k** eta **EHNEek** hainbat bilera egingo dituzte.*

AZALPEN OROKORRA

Sigla batzuk osorik irakurtzen dira, eta beste batzuk letraz letra. Beraz, sigla **nola ahoskatu, hala deklinatzen** dira:

- ELA. Nola irakurtzen da? **e-la**. Beraz, **ELAko...**
- UPNA. Nola irakurtzen da? **up-na**. Beraz, **UPNAk...**

Adibide gehiago: IVAP (i-vap), PSOE (pe-soe), UGT (u-ge-te), LAB (lab), UPN (u-pe-ene)...

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Esaldi honetan bi gauza nabarmendu behar dira:

a) Batetik, **DBH sigla** honela irakurtzen da: **de-be-hatxe**. Beraz, forma zuzena hau da: DBHko.

b) Bestetik, **siglak izen propioak bezala deklinatzen** dira. Beraz, ez dute artikulurik hartzen (-a gabe).

Ad. Ikasleen %86k lortu dute azken ikasturtean **DBHko** titulua **EAEn**.

2. Oro har, siglak deklinatzean ez da marratxorik jartzen. Nolanahi ere, **-k, -n** edo **-r** letrarekin bukatzen diren siglak **deklinazioko -k, -n** edo **-r hizkiekin lotzean, marra erabiltzen da: BBK-k, UPN-n, RPR-ren...**

Ad. **AEK-k** eta **IKAk** Nafarroako Gobernuak euskaltegiei zuzendutako diru laguntzak murriztu izana salatu zuten atzo.

3. Honako kasu honetan, **ez dago arrazoirik marratxoa jartzeko:**

Ad. Oposizio lehiaketetan jendea baztertzeko jokabide ezegokia erabili duela egotzi dio **ELAk BBKri**.

4. Honako kasu honetan, hitzaren azken letra eta deklinabidearena berak direnez, marratxoa jarri behar da.

Ad. **UPN-n** eta **CDN-n** erakusketa debekatzearen aldekoak dira gehienak.

5. Honako kasu honetan, **ez dago arrazoirik marratxoa jartzeko:**

Ad. **EAK** eta **EAJk** gaur aztertuko dute Batasunaren programa.

6. Esaldi honetako siglak honela irakurtzen dira: **lab, e-la, e-ne**.

Ad. **LABek, ELAk** eta **EHNEk** hainbat bilera egingo dituzte.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99